



A.2.3. ARRAGÜETA

A.2.3. ARRAGÜETA

Azalera: 15.613 m²

I. Ordenazio-Irizpideak eta Helburuak

Eremu hau, Bidebarrieta Kaleak, kale horren 54 - 66. zenbaki bitartean dauden eraikinen atzealdeak, eta Bittor Sarasketa, Arragueta eta Ibarkurutze kaleek mugatzen dute

Hauek dira eremu honetarako proposamenak:

* Arragueta Kalea berrordenatzea, kalearen alde bietan lerrokadura berriak finkatuz, A.A.-132 Arragüeta 9-11-13-15-17-19-21-23 Jarduketa Isolatuaren garapeneren bidez. Jarduketa honen zehaztapenak dagokion hirigintza fitxan jasotzen dira.

* Arragueta Kalea oinezkoentzako egitea, geltokiaren inguruan sortutako oinezkoentzako espazioarekin eta Estaziño Kalearekin loturik, era horretan "zona lasai" edo "oinetzkoen area" bat sortuz, inguru honi erdialderako planteatutako hiri kalitate bera eskainiko duen espazio bat eskaintzeko.

Eremu honetatik kanpo geratzen da, A.A. 132 Arragüeta 9-11-13-15-17-19-21-23 Jarduketa Isolatua, eta horren zehaztapenak dagokion hirigintza fitxan jaso dira.

II. Hirigintza-Erregimen Orokorra

Kalifikazio Globala:

O-CG-01 "Kalifikazio Globala", Ordenazioko (I. Liburukia) V. Planoaren arabera.

Eraikuntzaren Baldintza Partikularrak:

Egungo eraikinak, ordeztzerakoan, O-AL-AO-1 eta O-AL-AO-2A "Lerrokadurak eta Sestrak. Ordenantza Eremuak", XII. planoetan zehazturiko lerrokadurei eta sestrei egokitu beharko dira, eta 2/2006 ELH Legearen xedapenak kontuan hartuta Hirigintza Arau Orokorrei egokitu.

Ego ibai-ibilguaren jabari publikoaren gainean kokatutako eraikuntzek duten egoeratik ondorioztatzen diren baldintzak kontuan eduki beharko dira.

Erabilera Baldintza Partikularrak:

Eremuaren erabilera ezaugarritzen duena Bizitegi edo egoitza erabilera da: Hirigintza Arauen agirian 8.3.07. Artikulua.- Egoitza erabilera (6. erabilera).

III. Ordenazio Xehatua

Eremu honetan xehatutako eremu-banaketa baldintzak, O-CP-01 "Kalifikazio Xehatua", Ordenazioko (I. Liburukia) VII. Planoan ezarritakoari egokitu beharko dira.